



2 OMENALDIA

Nagusien Omenezko Astea urriaren 1etik 8ra ospatuko da

Urtero lez, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, egitarau oparoa prestatu du Biyak Bat elkarteak Nagusien Omenezko Asterako: kalejira, dantzaldiak, jokoak, meza San Pedro Elizan, bazkaria, gimnasia erakustaldia... Urriaren 1etik 8ra bitartean iraungo dute ospakizunek. Antolatzaileek ohartarazi dute datorren asteko ostirala, hilak 16 izango dela urriaren 2ko bazkarian izena emateko azken eguna.



Landaberri-Garaikoetxeako geletan haurrek ederki eman zioten hasiera ikasturteari. Txikienek gurasoen laguntza izan zuten gelan, besteak jolas eta solas ibili ziren.

4-5 BURUNTZALDEA
Euskara ikasteko aukera eskualdeko euskaltegietan

Euskara ikasten hasi, segi edo euren maila hobetu nahi dutenentzat eskaintzak prest dauzkate Buruntzaldeko euskaltegiek, Lasarte-Oria eta Andoaingo Udal Euskaltegiek eta Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil eta Hernaniko AEK-k. Aurreko urteetako aukerekin alderatuta, bada berrikuntzarik: A1 eta A2 titulazioak sartu dituzte euskaltegiek. Matrikulazio epeak zabalik dituzte.

Diruz lagunduko zaitu Udalak!

Euskara ikasi
Buruntzaldean!

Jo gertuen duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN Andoaingo AEK Euzkoaren 3. Beha andoin@eak.eus 943 791 704	LASARTE-ORIA Muntteri AEK Euskaltegia Geltoki Kalea, 17, behea 943 372 663 muntteri@eak.eus	HERNANI Hernaniko AEK Larrea Kalea, 11 943 537 851 00793804 Zilag. ordua: 08:00-13:14	USURBIL Usurbilgo AEK Barkalaga Kale Nagusia, 43, behe 607 609 179 usurbil@eak.eus
ASTIGARRAGA Astigarragako AEK Kultur Orena, Nagusia 46 en Naberu Orena 3 60710687	LASARTE-ORIA Euskaltegia Barkalaga Kalea, 11 00793804 Zilag. ordua: 08:00-13:14	HERNANI Hernaniko Udak Barkalaga Kale Nagusia, 43, behe 00793804 Zilag. ordua: 08:00-13:14	USURBIL Usurbilgo Udak Barkalaga Kale Nagusia, 43, behe 00793804 Zilag. ordua: 08:00-13:14

2016-2017 ikasturtea berrikuntza eta ezustekoekin hasi da Lasarte-Orian. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko HH mailakoek Zumaburuko eraikinetik kanpo hasi beharko dute urtea. Landaberri BHI eta Lasarte-Usurbil Institutuko bateratzearen lehen pausoak eman dira.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean ezusteko bat izan dute udan. Zumaburuko eraikinean zaharberitze lanak egitean, eraikinaren eleanizko patologia izan daitezkeela ikusi da. Probak egin dira eta emaitzen zain daude. Segurtasuneko arrazoiak direla eta, ezingo da eraikina erabili.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak eta Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak ikastetxearekin adostuta, HH mailako ikasleek 2016-2017 ikasturte berria Zumaburuko eraikinetik kanpo hasiko dute, 2 eta 3 urteko

haurrek Sasoetako eraikinean eta 4-5 urtekoak, aldiz, Euskaltegi zaharreko ikasgeletan.

Udalak hartutako erabakiak egoerari aldi baterako konponbidea ematen diola azaldu du.

Honen ondorioz, ikasturteko lehen eguna atzeratu behar izan dute, irailaren 19a izango da.

Bestalde, ikastetxeko LH mailako gaztetxoak atzo hasi ziren lanean. Tutoreak eta ikasgela ezagutu eta oportetako abenturak elkarri kontatzeko astia izan zuten.

Lehen eguna

Landaberri ikastolako HH eta LHko haur eta gaztetxoak ere hasi dira martxan.

Moldaketen ikasturtea

Lasarte-Oriako ikastetxeetan hainbat aldaketa egongo dira ikasturte hasieran



Sasoeta-Zumaburu ikastetxean hainbat jolas eta joko egin zituzten 5. mailakoek.

Landaberri-Garaikoetxean 2 eta 3 urteko haurrak egokitzapeneko lehen eguna izan zuten eta hainbat negar entzun ziren geletan. Gurasoen laguntza ikastola eta ordutegi berrira ohitu eta irakasle, zein ikaskide berriak ezagutzeko egunak izango dira.

Zubietako eraikineko LH mailako gazteek berriz, Sasoeta-Zumaburuko antzera, tutore, irakasle eta ikasgela berriak ezagutu zituzten.

DBHko bateratzea

Hau guztiaz gain, Landaberri BHI eta Lasarte-Usurbil Institutuko bateratzearen lehen urtea izango da. Aurten DBH1 mailan nahastuko dira lehenengoz Landaberri zein Sasoeta-Zumaburuko ikasle izandakoak.

Bien bitartean, atzo DBHko gaztetxoek ikasturteko aurkezpena izan zuten, baita Batxilergoko ikasleek ere.

Irailaren 1etik aurrera, MATRIKULAZIOA ZABALIK

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea, 17, behea
20160 Lasarte-Oria
943 37 28 63 - lasarte@eak.eus
www.muntteri.blogspot.com.es

aek
euskara praktikoa

100% AFEKTIBO
Eman izena

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD

38-60 neurriak

NAGUSIEN OMENALDIA

Nagusien Omenezko Astean ekintza ugari

Urriaren 1a eta 8aren artean, herriko adinduek egitarau oparoaz gozatuko dute

Biyak Bat elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, Nagusien Omenaldi Astea antolatu du aurten ere. Ekintzak betetako egitaraua aurkeztu zuten atzo goizean elkarteko zuzendaritzako kide eta udal ordezkariak.

Exiquio Perez eta Adela Manso Biyak Bat elkarteko zuzendaritzako kideak, Jesus Zaballos alkatea eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua izan ziren 2016 urteko Nagusien Omenaldiaren nondik norakoak eskaini zituztenak.

Jesus Zaballosek aurtengo ospakizunak urriaren 1etik 8ra egingo dela jakitera eman zuen.

Adela Mansok berriz, ekintza zehatzak aurkeztu eta eskerak eman zizkien egitarau zabala antolatzen lagundu duten erakunde, elkarte eta pertsonen.

Egitaraua

Urriaren lehenean emango zaie

hasiera ospakizunei. Elkartean bandera igoera egin eta agurra dantzatuko da.

Ostean, Isla plazan, toka, igela eta pote txapelketak jokatuko dira; elkartean, berriz, bingo lehiaketa.

Urriaren bian, igandean, hainbat ekintza antolatu dira: San Pedro parrokiaren meza, kalejira, Amaia Gonzalez Caballeroren erakustaldia, bazkaria eta dantzakiak 'Ruby berriak' taldearen eskutik.

Aurkezpenean azpimarratu legez, bazkarian 80 urte betetako bazkideei oparitxo bat egingo zaie, baita adinez zaharren diren emakume eta gizonari ere. Gainera, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak den Lourdes Ace-



Biyak Bat elkarteko kideek udal ordezkariekin batera aurkeztu zuten egitaraua.

vedok, 90 urte baino gehiago dituzten eta bazkari gaixotasunagatik edo dena delakoagatik joan ezin diren herritarrek etxean detailetxo bat jasoko dutela ere jakitera eman zuen.

Astelehenean, urriaren 3an, kiroldegian gimnasia erakustaldia eta elkartean ipuin-kontalaria izango dira.

Urriaren 4an, Biyak Bat elkarteko abesbatzak eta Lezo-

ko abesbatzak emanaldia eskainiko dute Ama Brigitarren kaperan.

Asteazkenean, urriaren 5a, zumba eta lerroko dantzen erakustaldia egingo dute elkarteko kideek. Antzerkia ere izango da arratsaldean.

Urriaren 6an, goizean, ibilaldi osasuntsua egingo da herritik barrena; arratsaldean berriz, dantza lehiaketa.

Urriaren 7an, ostirala, ibilaldi neurtua eta antzerkia izango dira.

Azkenik, urriaren 8an, larunbatez, urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteek oroigarriak jasoko dituzte eta elkarteko 38. urteurrena ospatuko da.

Izen-emateak

Hauetako hainbat ekintzetan parte hartzeko izena eman behar dela azpimarratu zuten.

Urriaren 2ko bazkari gozoa dastatzeko irailaren 16a baino lehen inskribatu behar da. Lasarte-Orian errol-datua egon behar da eta 1951ean edo lehenago jaio izana ere bai.

Lehiaketen kasuan, epea irekia dago, dantza lehiaketa-rena izan ezik. Hori egunean bertan egingo da.

Bestalde, irailaren 26an ibilaldi neurtuan parte hartzeko izen-ematea itxiko da. Dortsala eta tiketak irailaren 29tik urriaren 4ra jasoko dira.

Kultur Kale zikloaren azken saioa

Udako ekintzen baitan Kultur Kale zikloa izan da gurean. Sei saio programatu zituen udalak herritarrek musika estilo ezberdinez gozatzeko aukera izan zezaten.

Uztailean hasitako kontzertu egitaraua amaierara helduko da larunbatean. Auzo ezberdinetan izan dira saioak eta larunbatekoa Urbarten izango da. Hugo Silveira & Naldo Gomes brasildarrek 20:00etan hasiko den kontzertuan brasildar musikaren klasikoak joko dituzte, baita egungo musikarenak ere, gitarrak eta bateriaz lagunduta.

Programatu ziren kontzertuen artean, bat atzeratu bazen ere, guztiez gozatzeko



Tximistarretan aritu ziren PJ Kahuna eta Sara Grajal.

aukera izan da. Aurreko asteburuan Pop, Rock, Soul eta Country estiloko musika emanaldia eskaini zuten PJ Kahuna eta Sara Grajal bikote musikariak.

Estilo anitzeko kontzertu atsegina eskaini zuten Tximistarretan. Giro eguzkitsuak lagunduta, puntu-puntu hasi eta hainbat musika doinu ezagun entzun ziren Greasen 'You're the one I want' eta Amy Mcdonalden 'This is the life' abestiak, besteak beste.

Materialari dagokionez, idazmahaiko materiala, eskolako jarduerarako behar diren arropak, optometriako materiala, kirolerako materiala edo jarduera artistikoetarako beharrezkoak direnak izan daitezke.

Eskolako materiala erosteko laguntza

40.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familiak izan daitezke laguntza honen eskatzaileak. Horrela hiru multzo bereizi ditu udalak, Ikasle eta familia-unitate bakoitzeko jaso daitezkeen laguntzak honako hauek direlarik: 20.000 eurotik beherako diru-sarrerentzat, 75 euro; 20.000 eta 30.000 euro bitarteko diru-sarrerentzat, 50 euro eta 30.000 eta 40.000 euro bitarteko diru-sarrerentzat, 25 euro.

Materialari dagokionez, idazmahaiko materiala, eskolako jarduerarako behar diren arropak, optometriako materiala, kirolerako materiala edo jarduera artistikoetarako beharrezkoak direnak izan daitezke.


Erosketa guztiak herriko dendetan egin beharko dira. Horrekin lotuta, 75 euroko laguntza jasotzeko aukera izanda, 75 euroko gastua egiaztatzen duten tiketak aurkeztu beharko dira.

Lehen eta bigarren hezkuntzako derrigorrezko etapetan eskolatutako adingabeak dituzten familiek izango dute laguntza jasotzeko aukera, berdin delarik zein udalerritan eskolatuak dauden.

Laguntza jaso ahal izateko, eskaerari erantsi beharko zaizkio herriko dendak emandako tiket edo faktura sinplifikatuen jatorrizkoak. Tramitazioa kultur etxean edota on-line egin ahal da. Informazio gehiago www.lasarteoriasarean.eu/laguntzak atalean jarri du Udalak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maidar Segurolo, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

IKASTAROAK

Ikastaro eskaintza berria

Astelehenean zabalduko da izena emateko epea



Manuel Lekuona eta Gaztelekuan ikastaro ezberdinak burutzeko aukera izango da.

Ikasturte berriarekin batera, ikastaro eskaintza zabala dago herrian. Manuel Lekuonan eta Gaztelekuan gustu guztietarako ekintzak izango dira abendura bitartean. Izena emateko aukera irailaren 12an zabalduko da bi lekuetan.

TXINTXARRI

Manuel Lekuona eta Gaztelekuko ikastaro berrietan izena emateko aukera astelehenean zabalduko da. Kultur etxean jarreraren heziketa, olio eta pintura, jostaketa, literatura tailerra, arropen konponketa eta moldaketa, akuarela, irriterapia eta sabel dantzan aritzeko aukera izango da. Hauetako batzuk aurreko ikasturtean egin ziren, harrera onarekin.

Ikastaro bakoitzaren ordutegia eta egutegia finkatuta daude dagoeneko,

denak arratsaldean, eta hori bai, denak urrian jarriko dira martxan. Jarreraren heziketa, olio eta pintura, jostaketa eta literatura tailerraren kasuan, ikasturte osorako ikastaroak izango dira. Besteak berriz, arropen konponketa eta moldaketa, akuarela, risoterapia eta sabel dantza, abendura bitartean egingo dira.

Ohi bezala, herritarrentzat prezio bat eta herrian eroldatuta ez daudenentzat beste bat izango da.

Ikastaro hauek helduentzat dira eta taldeetan erabiliko den hizkuntza, ikasleen eus-

kararen ezagutzan oinarritutako metodologia baten arabera definituko dela azpimarratzen du Udalak.

Gaztelekua

Gazteek berriz, Gaztelekuko ikastaroak gozatu ahal izango dute. Hauetan izena emateko epea bera izango da, irailaren 12tik 23ra Gaztelekuan.

Gitarra, perkusioa, break dance eta shuffle eta dance hall egiteko aukera izango da. Ikastaroak 12 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta daude eta ikastaro guztiak euskaraz eskainiko dira.

Kasu honetan, ikastaro guztiak abendura bitartekoak izango dira asteazken, ostegun edota ostiral arratsaldetan. Hauetan parte hartzerako deitzen ditu Udalak herritarrek.

MUSIKA ESKOLA

Izena emateko epea zabalik

Matrikula epea uztailean izan zen Udala Musika Eskolan baina epe honetan, plaza libreak dituzten Musika Hizkuntza eta instrumentuetara apuntatzeko aukera izango da irailaren 15a bitartean. Izena ematea kultur etxean bertan egin behar da.

Laguntza ekonomikoren bat jasotzen dituztenentzat salbuespenak eta hobariak daude. Gazte txartela municipal edo Eusko Jaurlaritzarena dutenentzat %10 deskontua dago eta familia ugariarentzat %30eko beherapena. Kuotatan bonifikazioak eskatu ahal izango dira familia unitateko bi kidek izena ematen badute eskolan.

EUSKARAREN MARATOIOA

Euskararen maratoiko materiala salgai

Euskararen 9. Maratoia izango da gurean urriaren 22 eta 23an eta dagoeneko prest daude "Irten armairutik!" leloarekin ateratako kamiseta, kirol jertseak eta poltsa dotoreak. Tkuneko bulegoan edota Jalgin eros daitezke.

Prezioei dagokionez, hurren kamisetak 10 euro, helduek 12 euro, kirol jertseak 20 euro eta poltsak 6 euroren truke eskura daitezke.



HAUTESKUNDEAK

Posta bidezko bozka bideratzeko laguntza

Irailaren 25ean Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak ospatuko direla eta, Lasarte-Oriako EAJ eta PSE-EE alderdiek posta bidezko botoa tramitzeko laguntza dute martxan. Irailaren 15era arte bideratu ahal da bozka.

Lasarte-Oriako Alderdi Sozialistak Gambon kokatua dagoen Casa del Pueblo-n ari da laguntza zerbitzua eskaintzen, astelehenetik igandera 8:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, baita 943 372 869 telefono zenbakian ere.

EAJk berriz, posta bidezko botoa tramitzeko zalantza guztiak argitzeko ondorengo telefono zenbakiak jarri ditu herritarren eskura, 689 719 018 eta 943 363 409.

Era berean, gaixotasun edo ezintasun batengatik dela eta etxetik atera ezin duten herritarrek etxetik bozka emateko aukera dutela gogorarazten dute alderdiek.

GANBO ITURRI

Agirre lehendakaria aztergai

Herriko Ganbo Iturri elkarteak larunbatean egingo du Elkarbizi taldearen zortzigarren ikastaroa, 11:00etatik aurrera, Andoaingo Urigain Etxeko areto nagusian.

"Agirre Lehendakari. Guztion arteko bat egitea eta bake soziala, gerren ondoko bizikidetzara erakitze (1936-1945)" izango da ekitaldian jorratuko den gaia.

Joxan Rodriguez Ranz historialari andoaindarra izango da hizlari. Deustoko Unibertsitateak Donostian duen campusaren errektoreordea izateaz gain, Agirre lehendakariaren biografiaren egileetako bat da. Ikastaroan parte hartzeko plazak mugatuak dira eta izena emateko epea, gaur, irailak 8, bukatuko da. Izen-ematea, ganboiturri@gmail.com helbidean egin daiteke.

LANA

Hazilan egitasmoa

Buruntzaldeko Udalek Hazilan Programaren lehen edizioa jarriko dute abian irailaren 19an. Langabezian dauden 20 eta 35 urte bitarteko gazte kualifikatuei zuzendutako egitasmoa da. Programaren helburua kolektibo honi bere laneratze prozesuan laguntza ematea da zeharkako kompetentziaren prestakuntza pertsonalizatua emanaz eta ondoren enpresetan hiru hilabeteko praktikak eginez. Hazilan-en parte hartu nahi duten gazteek www.hazilan.eus-en eman behar dute izena irailaren 8rarte edo [fazilan@andoain.eus](mailto:hazilan@andoain.eus) helbidera mezu bat bidaliz.

Kirol berriak probatzeko aukera

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuek 2016-2017 ikasturte honetan pertsona heldu nahiz gazteei zuzendutako jarduerak eskaintza zabala aurkeztu du.

Aerobika, pilatesa, indoor-txirringularitza, zumba edo igeriketa dira ohiko kirol jardueretako batzuk. Hala ere eskaintza berritzeko asmoz beste ikastaro batzuk ere eskainiko dira. Helduek jumpfit eta multifitness jardueretan izena emateko aukera izango dute eta gazteek, berriz, gazte funki saioetan.

Aurrekoaz gain, Muskulazio eta Kardio gelan kirol aholkularitza zerbitzua ere eskainiko da. Honen bitartez, erabiltzaileei kirol makina ezberdinen erabilera egokia azaldu, entrenamenduen gida eskaini, eta zerbi-



Ohiko eskaintzaz gain, kirol berrietan aritzeko aukera izango da.

tzu berezia kontratatzen dutenei entrenatzeko programa pertsonala ere egingo zaie.

Izena ematea

Jarduerak guztiak irailaren 12an hasiko dira, haurrentzat antolatutako igeriketa ikastaroak izan ezik; azken hauek

irailaren 26an izango dute lehenengo saioa. Jarduerak buruzko informazio gehiago jaso edo izena eman nahi duten herritarrek kiroldegiko bulegora hurbildu beharko dute, astelehenetik ostiralera goizez 10:00etatik 12:30era eta arratsaldean 17:00etatik 19:00etara.



Euskalduntzea, erabilgarri

Iraila, lan edo ikastorduetatik kanpo, hurrengo hilabeteetarako aisialdi tartea antolatzen hasteko urte garai aproposa izaten da. Erronka berriei heltzeko une egokia; esaterako, euskara ikasten hasi, segi, edo maila hobetzeko. Euskalduntzekoa alegia. Hautu

hau egin nahi dutenentzat, Buruntzaldeako euskaltegiek, Hernaniko eta Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiek eta Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo AEK-k prest dute 2016-17 ikasturterako eskaintza.

Bada nobedaderik, ikasturte honi begira. "Berrikuntza da A1 eta A2 titulazioak sartu dituztela", adierazi digu Jokin Nazabal Hernaniko Udal Euskaltegiko kideak. Orain arte, B1, B2, C1 eta C2 titulazioa eskaintzen zuten euskaltegiek.

Berrikuntza garrantzitsua, asko baitira euskaltegira titulu bila doazenak. Lan munduak exijitzen dizkien hizkuntza eskakizunak betetze aldera, euskaltegira jotzen dutenek ikasle multzo garrantzitsua osatzen dute. "Asko datoz tituluaren bila, lan munduratzearantz dielakoan. Horiek titulua eskuratzeko presa izaten dute", Nazabalen esanetan. Azken urteotan, 16-25 urte arteko zenbait ikasle ere gerturatu zaizkie. Euskaraz hazi eta hezitakoak. "Hezkuntzak emandako B1 badute, baina lanerako agian B2 behar dute", dio Jokinek. Badira honez gain, familian euskaraz aritu ahal izateko euskaltegian matrikulatzen direnak ere.

Herriko bizitzan murgiltzeko zubia

Eskura dituzten erraztasun guztiak eskaintzen dituzte eskualdeko euskaltegiek. Malgutasun handia taldeak osatzeko, kideen orduetegi eta maila aintzakotzat hartzen baitute. Ikasle berrien kasuan, duten maila ezagutu eta talde egokian kokatzeko, proba modukoa egiten zaie ikasturtea abiatu baino lehen. Hain zehatza izan gabe, etxetik ere aukera badago jakiteko zein euskara maila dugun *buruntzaldea.eus* webgunean.

Klaseetan, taldean elkarre-ragin handia izaten da, ondo pasatzea da helburua, ikasiz gozatzea. Eta pizgarri moduan, ikasgelako jardunaz gain, ekimen osagarriak ere antolatzen dituzte. "Animatu dadila jendea, klaseak ahalik eta atseginenak izaten ahalegintzen gara. Honez gain, beti izaten dira urtean zehar, taile-rrak, gonbidatuak, euskaraz hitz egiteko Mintzalagun edo Solaskide egitasmoak...", berri eman digu Lasarte-Usurbilgo AEK-ko kide Olatz Urdanpilletak. Eskaintza honi gainera, datorren martxoan ospatuko den 20. Korrika erantsi behar.



Eskura dituzten erraztasun guztiak eskaintzen dituzte Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiek.

Jokin Nazabal: "Inguruan euskaldun piloa izanda, haiekin harremanetan jartzeko euskara jakiteak plus bat eman eta harremana errazten du. Euskalduna ere erosoago sentiarazten du eta bera ere integratuagoa sentituko da"

"Jendea prestatzen joan dadila", iragarri digu Olatzek.

Hernaniko Udal Euskaltegian ere euskara erabiltzen laguntzeko "zubiak eskaintzen ditu; Mintzodromoa antolatzen dugu, astean behin dinamizatzaile batekin bi orduko solasaldiak kafetegian nahi duen ororentzat".

Euskaltegitik kanpo. Ikasgelak trebatzeko guneak bai baitira, baina euskaltegietan eginiko lana bezain garrantzi-

tua edo garrantzitsugoa da AEK-tik nabarmentzen dutenez, euskara "kalean erabiltzea. Maiz errepikatzen diegu ikasleei, euskaltegitik kanpo egin dezatela ahal dutena; ondokoa euskalduna izan eta euskaraz agurtzen jakinez gero agurtzea; erosketa txiki bat euskaraz egin badezakete, egitea; euskarazko musika eta telebista entzutea... Euskara nork bere zaletasunekin lotzea". Hartara motibagarria-

goa zaie bati baino gehiagori euskara ikasi eta erabiltzen hasteko pausoa ematea.

Urrats hori ematea ez baita sarritan erraza izaten. "Hanka sartzeko beldurra izaten da, gaizki ulertuko ote nauten", Urdanpilletaren esanetan. Baina arestian aipaturiko saia-kera txiki-handiak egiten hasi ostean, "oso motibatuak egoten dira eta oro har, behin pauso hori eman duenak ez du uzten. Kosta egiten baita". Batzuk ingurune hurbilenean ahotan hartzen hasten dira euskara. "Zenbaitek familian ematen dute. Hona datozen askok bikotea edo familia euskaldunak dituzte, edo seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzte. Beste batzuei ezagunekin zailagoa suertatu eta nahiago izaten dute dendetan edo beste eremu batean hasi", Jokinek azaldu digunez.

Harremanak erraztu

Aldaketok askoren bizimodu pertsonalean eragiten dute. "Ezagutu ditugu ikasle batzuk, koadrila ere aldatu dutenak", Olatzek aipatu digunez. Jokinen esanetan, "Hernani bezalako herri batean bizita, inguruan euskaldun piloa izanda, haiekin harremanetan jartzeko euskara jakiteak plus bat eman eta harremana errazten du. Euskalduna ere erosoago sentiarazten du eta bera ere integratuagoa sentituko da".

Olatz Urdanpilleta: "Euskarak, asko ematen du"

Euskara giro atsegin eta erakargarrian ikasteko aukera dago Buruntzaldean, eta merke asko gainera, lekuan lekuko udalak eskaintzen dituen diru-laguntzei esker. Era honetan, ehuneko kopuru altuan finantza ditza-kete ikasleek, euskara ikasteak eragiten dizkien gastuak.

"Zenbat eta lehenago, hobe"

Honenbestez, gonbita luzatua digute. "Pausoa eman dezatela, zalan-tzan badaude, zenbat eta lehenago hobe", adierazi digute Hernaniko Udal Euskaltegitik. "Etor daitezela lasai. Euskarak, hizkuntzaz gain, asko ematen du. Denbora pixka bat eskaini beharko diote, baina trukean jasoko dutena asko da. Animatu!", luzatu digu gonbita AEK-tik Olatzek. Zuen esku, matrikulazio epea zabalik duzue.

Izena emateko garaia

Hernani eta Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiak:

• *Hernanikoan:*

Matrikulazioa: irailaren 23ra arte.

Ikasturte hasiera: irailak 26.

• *Lasarte-Oriakoan:*

Matrikulazioa: irailaren 16ra arte.

Ikasturte hasiera: irailak 19.

• *Eskaintza:* maila guztietako ikastaroak (C2 titulaziorako prestakuntza izan ezik). 10, 6 edo 5 orduko klase asteak,

Mintzodromoa, mintzapraktikarako saioak...

Eskualdeko AEK

• *Matrikulazioa:* irailaren 30era arte.

• *Ikasturte hasiera:* urriak 3.

• *Eskaintza:* euskara ikasteko aukera maila guztietan, Mintzalagun edo Solaskide egitasmoak, ikastaro zehatzak guraso edo merkatarientzat, urtean zehar tailer edo ekimen bereziak...

Diruz lagunduko zaitu Udalak!

Usurbil
%100



Andoain
%85



Lasarte-Oria
%85



Urnieta
%50-%80



Hernani
%70-%90



Astigarraga
%75



**Eus
ka
ra
ikasi**
Buruntzaldean!

Jo gertuen duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Extremadura 5 Behea
andoain@aek.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Munteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal
Euskaltegia**
Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896



buruntzaldea.eus

LABURRAK.-

Kirolari olinpikoei omenaldi beroa herrian

Lasarteoriarren berotasuna jaso zuten Maialen Chourraut pira-guistak eta Nely Carla Alberto eskubaloi jokalariek pasa den abuztuaren 24an. Bi kirolariak Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan aritu ziren lehian, ederki gainera.

Maialenek urrezko domina kolkoratu zuen ur bizietako K1 modalitatean, finalean jaitiera bikaina eginda. Nely Carlak, berriz, diploma olinpikoa ekarri zuen besapean; Espainiako eskubaloi selekzioak 6. postua eskuratu zuen.

Bi zatitan banatutako omenaldia izan zen abuztu amaierakoa. Harrera instituzionala egin zitzairen bi kirolariei lehenbizi, udaletxe zaharreko udalbatzar aretoan. Jesus Zaballos alkateak eta Denis Itxaso Foru Aldundiko Kirol diputatuak hitzaldiak eskaini zituzten, eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak ere parte hartu zuen. Kirolariak herriko intsignia jaso zuten, besteak beste.

Ondoren, desfilean joan ziren Okendo plazaraino. Bertan zain zituzten hainbat herritar; lepo zegoen plaza. Asier Odriozolak gidatuta, hainbat azalpen eman zituzten Maialenek eta Nely Carlak, eta jasotako omenaldiagatik eskerrak eman ere bai.



Buruntzaldea IKTko hainbat kidek Donostiako Irlako Zeharkaldian hartu zuten parte

Buruntzaldea IKTko igerilariak uretan murgilduta egoten jarraitu dute udaren zehar. Abuztuko azken asteburuan, esaterako, Donostiako Irlako 19. Zeharkaldia burutu zuten zenbaitek. Infantil kategorian sei igerilari aritu ziren: Leire eta Ainhoa Martin, Irati eta Joane Arzalluz, Nerea Santos eta Unai G. Somovilla. 600 metroko ibilbidea ederki osatu zuten denek.

Beste hiru taldekidek ordezkatu zuten Buruntzaldea IKT proba horretan, Nagusien kategorian: Joel Lopez, Andoni Salsamendi eta Yoli Pastorrek, hain justu. Maila oso txukuna eman zuten, hiru kilometroko ibilbidea burutuz.

LOKEko judokak, tatamira bueltan

Udan zehar indarrak berri ostean, denboraldi berri bati ekiteko prest daude LOKEko judokak. Astelehen arratsaldean ekin zieten entrenamendu saioei, Kiroldegiko tatamian.



Denboraldian zehar astelehen eta ostiraletan entrenatuko dute 7 eta 11 urte bitartekoek, 18:30etik 19:30era. 12 urtetik gorakoak, berriz, astean hirutan ariko dira: astelehen, asteazken eta ostiraletan. Entrenamendu-orduak honakoak izango dira, hurrenez hurren: 19:30etik 20:30era, 18:30etik 20:30era eta 19:30etik 21:00etara.

Ostadar SKTren areto-futbol alorrak nesken taldea osatu nahi du

Urtetik urtera gero eta bolumen handiagoa ari da hartzen Ostadaren areto-futbol alorra. Aurtengo sasoirako erronketako bat nesken taldea osatzea dela zehaztu dute antolatzaileak.

Horretarako, irailaren 13an bilera egingo dute, 20:30ean, egitasmo horri buruzko xehetasun gehiago emateko. Bien bitartean, aukera ematen diete interesa eduki dezaketen jokalariei euren datuak bidaltzeko: ostadarfutsal@gmail.com helbidera idatzi beharko dute, zehaztuz euren izen-abizenak eta telefona.

LOKEren tenis eskola, lanean

Iraila iristearekin batera hasi dira lanean LOKE elkarteko zenbait alor. Esaterako, tenis eskola. Joan den astelehenean ekin zieten entrenamenduei, Michelingo kirol guneko tenis pistetan. Aurreneko bi asteak taldeak osatzeko erabiliko dituzte.

Era berean, arduradunek jakinarazi dute ordutegiak pasa den denboraldiko berberak izango direla: 18:30ean hasiko dira entrenamenduak. Dena dela, norbaitek informazio gehiago nahiko balu, 647 156 456 telefonora deitu dezake, edo bestela, kirol gunera bertara gerturatu.

ARRAUNA.-

Denboraldia biribiltzera

Getaria-Zarautz emakumezkoen Kontxako Banderako ohorezko txandara sailkatu da; Intza Fernandez herritarra da kideetako bat

Intza Fernandezek bost urte daramatza arraunnean. Horietatik bi, azkenekoak, Getaria-Zarautz taldean igaro ditu. Aurtengo denboraldia aste-buru honetan itxiko du taldeak, Kontxako Banderako ohorezko txandan lehiatuz. Herritarra ez zen aritu aurreko igandeko estropadan; asteburu honetakoan lehiatzea du desio eta itzaropenen.



Intza Fernandez, uztaila amaieran Zumaian irabazitako banderarekin.

I. FERNANDEZ

IÑIGO GONZALEZ

Kontxako Banderan aritzea, arraunlari baten tzentzat, atleta batentzat Olinpiar Jokoetan parte hartzea bezala da". Intza Fernandez arraunlariaren hitzak dira. Horregatik, ez da harrizkoa horren penatuta egotea, aurreko igandeko estropadan ez parte hartzeagatik. Deialditik at geratu zen, entrenatzaileak hala erabakita: "Momentuan oso triste geratu nintzen, baina berehala txipa aldatu eta ahal nuen guztia egin nuen taldeari laguntzeko: irabiakiak prestatu, animoak eman... Igandean arraunean egin izan edo ez, denok osatzen dugu taldea".

Kontxako Banderako lehenengo estropada ez zitzaion batera gaizki joan Getaria-Zarautz taldeari. 11:05.44ko denbora eginda, laugarren postua eskuratu eta igande honetan ohorezko txandan ariko da, San Juan, Hibaika eta Oriorekin batera. "Donostiaren [Arraun Lagunak] aurretik geratzea zen gure helburua; Gipuzkoako Ligan borrokan ibili gara azken jardunaldira arte, eta azkenean eurak 4. izan dira, eta 5. gu", azaltzen du Intzak.

Joan den osteguneko sailkapen estropadan bosgarren denbora onena egin zuen

Getaria-Zarautzek. "Marka hori eskuetan hartuta, aurreko igandeko helburua zen bosgarren postu hori mantentzea, ez genuen espero Caboren aurretik geratzea, baina lortu genuen; orain, maila mantendu behar dugu, atetik dauzkagun taldeek aurrera ez gaitzaten".

Igande honetan arraunean aritzeko itzaropena du Intzak: "Denboraldi ia osoan zehar titular gisa aritu naiz. Ea igande honetan parte hartzeko aukera daukadan; entrenatzaileak estropada egunean bertan esan ohi du nortzuk ariko diren".

Denboraldia, bukatzeaz

Kontxako Banderako bigarren estropadarekin bukatuko da aurtengo denboraldia. Gipuzkoako Ligan aritu da Getaria-Zarautz: 62 punturekin, bosgarren postuan geratu da. Beste konpetizio bat ere badago, Euskotren Liga: sailkapen-fase bat jokatzeko da, eta lau talde bizkorrenak sailkatzen dira. Getaria-Zarautz ez da egon horien artean.

Helburu hori lortu ez badute ere, sasoiaren zehar erdietsi dituzte emaitza aipagarriak. Esaterako, uztailaren 30ean Zumaian jokaturako Gipuzkoako Ligaren bederatzigarren jardunaldia irabazi zuten.

Igandean aritu eta gero, atsedena, azarora arte. Deskantsatu

bai, baina erlaxatu ez, Intzak aipatzen duenez: "Entrenamenduetara ez gara itzuliko hemen-dik bi hilabetera arte, baina tarte horretan kontrolatu egin behar dut pisua, eta ariketa egin, lehenengo egunean hutsetik hasi behar ez izateko".

Astero sei egunetan entrenatzen dute. "Kirol gogorra da, denbora asko kentzen dizu: ez daukat denbora libre askorik, baina argi daukat datorren denboraldian arraunean jarraitu nahi dudala. Edukiko dut denbora aurrerago lagunekin egon eta beste plan batzuk egiteko", dio herritar gazteak.

Astean zehar ordu asko igarotzen dituzte taldekideek elkarrekin, eta horrek laguntzen du giro ona sortzen. Intzaren aburuz, "funtsezkoa" da hori, gero nabaritu egiten baita uretan.

Bost urtez arraunean

Aurtengoarekin, bost denboraldi dira herritarra arraunean hasi zenetik. Getaria-Zarautz taldean bi daramatza.

Denbora horretan guztian, Intzak nabaritu du eboluzio bat arraunlari gisara: "Mentalitatean nabaritu dut aldaketa, beste txip batekin hartzen dut orain arrauna: dena eman eta arraunlari gisa hobetu nahi dut. Gainera, fisikoan ere nabaritu dut garapena; fondo gehiago daukat orain".

Atzo ikasturte berri bati ekin zion Intzak, Gasteizen. "Ongi" moldatzen da ikasketak eta arrauna uztartzeko: "Astean zehar Gasteizen aritzen naiz, entrenatzaileak bidalitako plangintza jarraituz: klastetik irten, eta entrenatzera. Asteburuetan, itzuli eta taldekideekin aritzen naiz".

Emakumeen arrauna gora egiten ari dela dio, baina desberdintasunak daudela ere bai: "Gehiago kobratzen dute, eta lehentasuna dute klubetan".



Getaria-Zarautz trainerua, aurtengo estropada batean.

I. FERNANDEZ

Agenda

Ostiraletik igandera, Jaizkibel plaza



Guadalupeko Amaren ohorez

Lasarte-Oriako Guadalupeko Ama Extremadura Etxeak bere zaindariaren eguna ospatuko du asteburu honetan. Egitarau ederra antolatu du heldu, haurrei, zein gazteei zuzendua. Musika, lehiaketak, jokoak, emanaldiak, dantzaldiak, bazkariak... denetarik izango da Jaizkibel plaza zein elkartearen. Hala nola, herriko taldeak zein lagun diren Errenteriako edo Iruñeako Extremadura etxeetako taldeak izango dira oholtzan.

Ostirala
18:00etan, standa irekitzea.
18:30ean, Oaintxe in Deu txarangarekin kalejira auzoan zehar.
19:00etatik 21:00etara, pin-txo-potea Jaizkibel Plazan jarritako standean. Extremadurako produktuak dastatu ahalko dira.
21:00etan, Bandera goratzea, Extremadura Erkidego Autonomoko himnoa abestuz.
21:30ean, afari herrikoia Extremadura etxean.
22:30ean, Extrema y Dura Rock gaua:
Z.E.N.
Desembragadores
Korkones
02:00etan, migak elkarteko migagileen eskutik.

Larunbata. Haurren eguna
10:00etatik 11:00etara, Marrazki eta pintura lehiaketa. Gaia: Eguberrietako Extremadurako irudiak.
11:00etatik 17:00etara, haur-jolasak Jaizkibel Plazan eta ur-guda Tximistarretan.
12:00etan, extremadurak meza Extremadura Etxean, Errenteriako 'Ecos de Monfragüe' Extremadura etxeko kantari-taldeak girotua.
14:00etan, bazkari herrikoia.
16:00etan, karaokea Nilson Olivaresek gidatua.
16:30ean, binakako mus txapelketa irekia.
Amitzean, sari banaketa.
17:00etan, haur-jolasen irabazleei sari banaketa eta hau-
rentzako txokolatada.

19:00etan, Iruñeako Extremadura Etxeko 'Raices y Brotes' taldearen dantza eta kanta emanaldia.
21:00etan, bazkide eta lagunekin afaria.
23:30ean, Javier Paiva musikariaren emanaldia.
Igandea
13:00etan, Lasarte-Oriako 'Zambra' dantza taldearen emanaldia
14:00etan, bazkari herrikoia.
17:00etan, Emakumeen bola-joko txapelketa.
Amitzean, sari banaketa.
20:00etan, jaien amaiera eta bandera jaitsiera.

Lasarte-Oria Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA
Gaur arte, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
'100 Urte Hipodromoan' erakusketa ikusgai dago azken egunez. Argazki eta objektu ezberdinen bidez, Hipodromoaren ibilbide historikoa jasotzen da.



Musika

ILARGI TABERNA
Ostirala, 23:30ean
Big Time Sound System-en saioaz gozatu ahalko da.

ATSOBAKAR AUZOAN
Larunbata, 20:00etan
Kultur Kale zikloari amaiera emanez, Hugo Silveira eta Naldo Gomesen emanaldia.

Azoka

ATERPEAKO DENDETAN
Ostirala 23
Stock azoka izango da hainbat dendetan.

Usurbil

Gerra zibila: 80. urteurrena

SUTEGI KULTUR ETXEA
Osteguna 15, 19:00etan
'Memoria eta aztarnak' hitzaldia eskainiko da. Pako Etxeberria eta Lourdes Errazti Aranzadiko kideak eta Joxean Muguruza Islada Ezkutatuak elkarteko kideak. Aitzaga elkarteak antolatua.

TXALDATXUR
Larunbata 17, 9:00etan
Usurbildik aterata Txaldataxurreko lubakietara irteera.

ASKATASUNA PLAZA
Larunbata 17, 13:00etan
Zigortu eta gudarien 'oroitzapen ekitaldia'. Aitzaga elkarteak antolatua.

Bizipozaren jaia
FRONTOIA, DEMA PLAZA ETA MIKEL LABOA PLAZA
Igandea 25, 10:00etatik 18:00etara
Bizipoza Elkarteak eta Usurbilgo hainbat eragilek Bizipozaren Jaia antolatuko dute. Bizipoza Elkarte osatzen duten elkarten topaketa, 'Amalur' ikuskizuna, jolasak, antzerkiak, puzgariak, tailerrak, musika... denetarik izango da.

Herritarren txokoa

Udako Txoko eta kanpaldieetako arropa

Ttakun K.E.ko Aisia sailak jakin arazten du, Udako Txoko edo Donemiliaga eta Albeniz udalekuen ostean jasotako arropa Ttakuneko bulegoan esku-ragarri dagoela.
Jertseak, txaketak, kamisetak, amantalak, galtzak... irailaren 12tik 23ra jaso ahalko dira bulegoko ordutegian: astelehenean arratsaldeko 16:30etik 19:30era, asteartetik ostegunera goizetan 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 16:30etik 19:30era eta ostiraletan, goizez bakarrik 09:00etatik 13:00etara.

Neguko ordutegia kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, irailaren 1ean ezarri zen neguko ordutegia herriko kirol instalazioetan.
Kiroldegiko guneak astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandee-tan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsaldez egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahalko dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.
Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Hemeroteka

Duela 1228 ale

1998ko iraileko lehen alean, Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsionisten elkarteak Lasarte-Orian antolatutako VIII. Ibilaldi ez lehiakorraren berri eman zuen TXINTXARRI aldizkariak. Antolakuntza lanean ibili zen Lasarte-Oriako Biyak Bat elkarte eta orduan lehendakari zen Victorio Vicuñarekin hitz egin genuen ibilaldi honetako nondik norakoak jakiteko.

Gipuzkoako 84 zahar etxeetako 600 parte hartzaile izango ziren Lasarte-Orian. Vicuñak azaldu modura, zahar etxe bakoitzeko 8 kide izango ziren ibilbidea burutuko zutenak lauko bi taldeetan eta Lasarte-Orian zehar 10 kilometroko ibilbide laua egin behar zuten. Irteeratik 5 kilometrotara fruta, gaileta eta beste gauzekin poltsa bat emango zitzaizen, baita zapatila bazkari amaitzean ere. Honen ostean, Michelingo Kirol Udal kiroldegian bazkaria izango zuten.

Vicuñak nabarmentzen zuen bezala, oinarria adinekoen artean aktibitate indartzea zen eta aktiboa izateko estimuluak bilatzea. Berak aipatu legez, "gaurko gizartean banaketa handia dago gazte eta adinekoen artean. Hori dela eta, horrelako ekintzen bitartez banaketa hori apurtu joan nahi dugu".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Emaitza buelta bat zure munduari euskararekin 2016-17



IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

Udaleko euskaltegia
Muntteri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egin izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gaitutua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

ONDO iBiLi!

Informazio gehiago
Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

2016-2017 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULALDIA: Irailaren 1etik 16ra
IKASTAROAREN IRAUPENA: Irailaren 19tik ekainaren 22ra
BULEGO ORDUTEGIA: 09:00-19:15

30 urtez zuekin

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenetik ostegunera.
- AUTO-IKASKUNTZA.

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren maila guztiak.
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak.

Izena irailaren 1etik 16ra ematen baduzu, matrikula 10 kuotatan ordaintzeko aukera izango duzu.

DIRU-LAGUNTZAK:%85! GALDE EZAZU

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura)

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EPA LASARTE HHI

2016-2017 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Irailaren 2tik 16ra

OFIZIALA ETA DOAKOA

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH/ESO)
- Goi zikloko eta Unibersitateko sarbidearen prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat
- Tailerrak: Euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, nutrizioa, artea, literatur tertulia
- DELE A2 eta CCSE proben prestaketa

Ordutegia:
10:00-12:00
17:00-19:00*
(*ostiralak ezik)

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.es

EPA LASARTE